

**GOZATU
UDAN**
**irakurtzen
eta
jolasean**
2021



**JUAN SAN MARTIN
LIBURUTEGIA**



GOZATU
jolasean

Kaixo, familia

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta **Juan San Martin Udal Liburutegiak** opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasak eta liburu gomendioak proposatzen dizkizuegu. Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da.

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

GOZATU
irakurtzen



El **Servicio de Euskera** y la **Biblioteca Municipal Juan San Martín** os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.

Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera y la lectura mediante la diversión.

¡Las vacaciones son una buena ocasión para leer y jugar juntos!



0-4 URTE



GOZATU UDAN IRAKURTZEN!

0-4 URTE

BAT BAINO
EZ DA!

AMAK BATZUETAN
TRUMOLAK IZATEN
DITU BURUAN

JOHN
CONDON

MAI
HUN

BADATÓZ

PIRATÁK!

CYNTHIA
RYLANT

BRENDAN
WENZEL

BIZITZA

Besarkatzeko
unea iritsi arte

GOZATU UDAN IRAKURTZEN!

+ 5 URTE




Badauzkat nire zulotxoan...

Alaine Agirre

Ikaseltar, 2020

Badauzkat nire zulotxoan... ipuinaren kasuan, Alaine Agirrek eta Irrimarrak hitzak eta irudiak elkartu dituzte negua pasatzeko janaria biltzen ari den urtxintxaren istorioa kontatzeko. Ipuinean bada, ordea, etengabe presente dagoen beste protagonista bat ere. Bukaerara arte, baina, ez dugu jakingo nor den.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Amatxoren jertsea

Jayde Perkin

Ibaizabal, 2021

Amatxok alde egin zuenean, guztia betiko aldatu zen. Amaren hutsunea sentitzea etengabe buru gainean hodei beltz bat izatearen edo itsaso erdian igerian aritu eta itsasertzera iristea sekula ez lortzearen parekoa da. Nola jarraitu aurrera? Oroitzapenak lagungarriak dira eta amaren jertsearen antza dute; izan ere, jantzi eta haren besarkada senti dezakezu. Baliteke bere jertsea izatea amatxo gertu izateko modua.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Daniela eta neska piratak

Susanna Isern


NubeOcho, 2020

ntzi pirata berri bat dago itsasoak zeharkatzen, Piraña Intrepiden itsasontzia! Ospetsuak egiten ari dira, arriskuan dagoen jendea salbatu dute eta sekulako altxorak lortu dituzte

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



+ 5 URTE



Ernesto elefantea

Anthony Browne
Kalandraka, 2021

Oihaneko beste ezein biztanlek ez dio laguntzen bere taldera itzultzen. Ez piztiarik indartsuenak, ez basatienak, ez azkarrenak ere. Txikienak, ordea, ustekabea emango dio...

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




Eskeleto barregarriak

Janet eta Allan Ahlberg
Kalandraka, 2021

Hiru eskeleto jator atera dira gau batez paseatzera eta jendea ikartzera. Jolasak eta kantuak irakurgai beldurgarriro dibertigarri batean.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Eskerrik asko

Rocío Bonilla
Algar, 2021

Ustekabeko matxura bati esker, auzoko bizimodua erabat aldatuko da. Jakin-minari eta enpatiari esker, auzokideak urrutira iritsiko dira, oso urrutira. Elkarrekin iritsi ere. Elkarbizitzari eta giza harremanei buruzko istorio bat. Gu guztion inguruko istorio bat.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



+ 5 URTE



Familia xelebrea / Anjel Lertxundi Ikaseltar, 2021

Familia xelebrea album ilustratuaren kasuan, Anjel Lertxundik eta Jokin Mitxelenak hitzak eta irudiak elkartu dituzte xelebreetan xelebreena den familia aurkezteko, Erramun Babarrun, Mariaje Potaje, Serafin Mokofin eta Arantxa Balantxarena. Behin etxera bazkaltzera gonbidatu zuten lagun baten historia kontatzen da liburuan. Gonbidatuta zaude zu ere.


Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Jak txikiena Lu Fraser Ibaizabal, 2021

Hain handia den talde baten erdian txikia izateak buruko min handiak eragin ditzake. Nahiz eta hazteko pazientzia izan behar duzula behin eta berriro errepikatu! Baina, batzuetan, egoera zailenak sorpresa izugarria izaten dute atzean. Nork esan du jak txiki batek heroi handi bihurtu ezin duenik?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Arkakuso txakur bila Will Mabbitt

Ibaizabal, 2021

Arkakuso aspertuta dago txakur zahar baten ile artean bizitzeaz eta etxe deituko liokeen beste zerbaiten bila atera da. Dena den, denetan topatzen ditu gabeziak. Aurkituko al du Arkakusok bere txakur egokia?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



+ 8 URTE




Puffy eta Brunilda

Barbara Cantini

Mezulari, 2021

Ikusi al duzue inoiz katurik ez duen sorginik? Puffy kale katua ia guztiz beltza da, eta berarekin egoteko norbaiten bila dabil. Brunilda ile gorri eta ugariko neskato bihurri samarra da, eta mila gelako etxe ikusgarri batean bizi da. Egunez loradendakolaguntzailea da eta gauez sorgingai bihurtzen da.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Onin mitologiaren lurraldean

Ibon Martín

Travel Bug, 2021

Etorriko zinateke mitologiaren lurraldera? Kaixo! Onin naiz. Aspalditik izan dut mitologiaren munduan barneratzeko ametsa. Sekula ez nuen pentsatuko sarbideko atea etxetik hain gertu egongo zenik, inguratzen gaituzten mendietan. Alupak, gure lagun inuitak, laguntza behar du. Haren herria arrisku larrian dago, eta Mari jainkosak izan lezake hari laguntzeko giltza. Marirengana iristea ez da erraza izango. Lehenik, ustekabeko ertsonaia batzuei egin beharko diegu aurre: hor izango ditugu Tartalo, Herensuge, laminak eta beste.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Patti eta inurriak

Anouk Ricard

Asteberri, 2020

Pattik egun txarra izan du. Eskolan nota txarrak atera ditu, eta irakasleak errieta egin dio. Etxera itzultzean, gurasoak ere haserretu zaizkio. Nahigabetuta, logelan bilatu du aterpea, eta Internetera konektatu da, baina, ustekabea, aukitit erori eta konortea galdu du. Handik gutxira, neskaila ñimiño bilakatuta itzartuko da gurasoen lorategiaren erdian. Inurri batzuek bahitu egin dute, baina, geroago, bakarrik utziko dute intsektuek, haien nagusia morroi zital samarra- suminduko ote zaien beldurrez. Benetan larritzen hasita dago Patti

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



+ 8 URTE



Asteburu bat eskiatzen Jasone Osoro

Mezulari, 2020

Lagun-taldea berriz elkartzeko irrikitan dago, baina Basakabi eta uda urrun geratzen dira oraindik. Horregatik, asteburu bat eskiatzen pasatzea erabaki dute. Zuri eta Maddi New Jersey badaude ere, beste guztiek lozakuak prestatu dituzte eta aterpetxe batean hartu dute ostatu. Batzuek primeran eskiatzen dute; beste batzuek, berriz, ideiarik ez. Hala ere, nor bere erara ongi pasatzen saiatuko da. Azkenik, ustekabe batek harrapatuko ditu den-denak, eta eskiaz gain, bestelako abenturak biziko dituzte.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




Biga : benetan identifikatu gabeko animalia

Romain Pujol, Vincent Caut
Asteberri, 2020

¿Eskolara berriz! Animalia lehen hezkuntzako eskolak zabalik ditu ateak bere ikasleentzat lehen eskola-egunean eta Bigak bere lekua bilatzen du ikaskideen artean. Ikasturte berriaren ohiko hasiera dirudi, baina Bigak hasiera-hasieratik txunditu ditu ikasleak. Ez du bere ikaskide txikien batere antzik. Ez da haiek bezalakoa: ez hartza, ez txoria, ez dortoka

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Kroketa pozoituak (Xeherlock detektibea)

Sébastien Perez

Mezulari, 2020

Hugo ezustekoz betetako eraikin-labirinto batean bizi da. Gau batean lo geratzen da ate misterioitsu baten alboan, Eta esnatzen denean... Adiskidetasunari buruzko istorio samurra.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad





Oier

Alaine Agirre
Erein, 2018

+ 12 URTE

Mundura begira bizi da Oier, baina ama gaixotzen zaionean bere barrura begiratu beharko du halabeharrez. Ustez sendoak ziren ideietan arrakala txiki batzuk irekiko zaizkio, eta emozioek dardarka jarriko dute bere izateko moduaren eraikuntza osoa. Jakiteak eta ulertzeak bizitzako gertaera batzuk konpondu ezin dituztenean, bizitzan aurrera egiteaz eta kolpeei aurre egiteaz dihardu eleberri honek.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




Azken dantza New Yorken

Lur Gallastegi
Elkar, 2020

Gasteiz, Bilbo eta New York dira hamahiru urteko Ingeren bizitzan pausaleku izan diren hiriak. Gasteizen jaio zen, Bilbora aldatu behar izan du familiarekin aita hil eta gero, eta New Yorken bere burua ezagutu eta aurrenekoz maiteminduko da.

Dantza lehiaketa irabazi ondoren joango da Inge New Yorkera ikastaro bat egitera. Maleta ilusioz gainekza eramateaz gain, amak bere liburuxka bat eramaten utziko dio.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Trumoiaren alaba

Jon Arretxe
Erein, 2020

Sumatra uhartean kokatutako abentura-nobela honetan, neska nerabe bat, Batari, eta bere neba txikia, Kusuma, bakarrik geratu dira munduan hondamendi natural baten ondorioz. Ibilbide luze bat egin behar dute elkarrekin uhartean zehar harrera ona egingo dien ahaideren baten bila. Ustekabez eta magiaz zipriztindutako istorio honetan, mila abentura eta arrisku biziko dituzte neba-arrebok eta hainbat adiskide egingo dituzte beren helburua lortzen lagunduko dietenak. Emakumeen egoera, naturaren suntsitzea, turismoaren eragina, erlijioen arteko lehiak, umeen trafikoa, mafien lana... dira azaltzen diren gaietako batzuk.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



+ 12 URTE



Mikel Larson
Antton Kazabon
Erein, 2020

Dantza kontuei zegokienez oso gustura zegoen Mikel, primeran zihoakion dena, berak pentsatzen zuen bezalaxe. Bidea gero eta argiago, garbiago ikusten zuen. Buruan, ordea, bazuen beste kontu bat aspalditik bueltaka, eta horretan ez zituen gauzak hain garbi ikusten. Mainerrekin hitz egin behar zuen lehenbailehen horretaz guztiaz, baina ez zekien nondik eta nola hasi. Txikitatik biak beti elkarrekin... Mainerrek asko maite zuen Mikel, baina hori ez zen nahikoa.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

Irakurketa gomendio gehiago nahi dituzu?
kontsultatu nobedaden atala gure blogean

¿Quieres más recomendaciones de lectura?
Consulta el apartado de novedades de nuestro blog



<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar/eu/nobedadeak/>

Eta orain jolastera ...
Y ahora a jugar



GOZATU UDAN IRAKURTZEN!

EGURRETAN

Txalo-jolas bihurtutako antzinako abestia

+ 4 URTE

Nola jolastu?

Umeak binaka jartzen dira, eta kantatu bitartean eskuekin egiten dute jolas, txaloka. Umeek beraiek asma dezakete txalo-jolasa, irakaslearen laguntzarekin.

Partaide kopurua (gutxienez): 2

**Aittitte ta amume
bixak egurretan**

**Aizkoria galduta,
bixak errixetan**

**Ai ai ai mutila,
txapela gorria**

**Ai ai ai neskatxa,
pañelo txuria**



**Aittitta ta amama
juan ziran mendira,
aixkoria galduta
hasarratu ziran**

**Aittittak amamari
kopetatik tira
amamak aittittari
belarritik tira**

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/egurretan>

ARRE ARRE MANDAKO

Altzoan salto eraginez egiten den kanta

+ 1 URTE

Nola jolastu?

Umea altzoan hartuta egiteko jolasa da, kantatu ahala umeari salto eragitekoa; heldu batek (ala ume nagusiago batek) txikia altzoan hartzen du, eta kantatu egiten dio, belaun biak saltoka mugituz. Batzuek altzoan izan beharrean hanka bakarraren gainean ipintzen dute umea, esku bietatik helduta, eta oin bat gora eta behera mugitu.

Umeak berak panpin batekin ere egin dezake: berak kantatu, panpina altzoan hartuta edo oinaren gainean jarrita, gora eta behera mugituz.

**Arre-arre mandako,
bixer Tolosarako
etzi Panplonarako,
handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.
Norendako?
Norendako?
Mikelendako/ gure
umetxuendako**



<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/arre-mandako>

DONA DONA KATONA

Zotz egiteko antzinako abestia

+ 4 URTE



**Dona Dona
Katona
Sutondoan
aitona
Lepotik behera
kutuna
A ze neska/mutil
tuntuna
Zu kanpora!**

Nola jolastu?

1-Asko baldin badira, umeek biribil bat osatuko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berriz, nahikoa da elkarren ondoan jartzearekin, marra bat osatzen, eta beste umea haien parean jartzea, aurrez aurre.

2-Umeak kanta kantatuko du, gainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuz. Ume guztiek batera abestu dezakete. Abestia bukatzen denean, "ra" esatean, seinalatzen ari den ume hori izango da aukeratua. Zertarako? "Kanpora" esaten du abestiak, eta ume hori biribiletik kanpo geratuko litzateke.

3-Ume kantariak kantatzen jarraituko du, eta banaka-banaka umeak kanporatzen joango da. Ume bakarra geratzen denean, horixe da jolasa irabazi duena.

Sariren bat edo opariren bat banatu behar denean erabil daiteke kanta hau.

Zotz egiteko kanta-jolasak gauza positiboetarako erabiltzea komeni da, eta ez inor kanpoan uzteko. Hortaz, seinalatutako umea biribilaren erdian ipintzea izan daiteke beste aukera bat. Hala, ume gehienak jarriko dira biribilaren erdian, kantuan.

Askotan izaten da zerbaiteko zotz egiteko beharra: taldeak egiteko, zerbait egin behar duena aukeratzeko, zerbait banatzeko... Horrelako egoeretan erabil daiteke zotz egiteko kanta hau. Besterik gabe jolas moduan ere erabil daiteke, ondo pasatzeko.

Partaide kopurua (gutxienez): 3

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/dona-dona-katona>



ARBOLATIK ARBOLARA

Zuhaitz batetik bestera joanez egiten den jolasa

+ 5 URTE



Zer behar da?

Espazio zabala behar da, eta, ahal dela, zuhaitzak dauden toki batean egin beharko litzateke. Toki perfektua: lauki bat osatzen duten lau zuhaitz izatea (hiruki bat osatzen duten hiru ere izan daitezke edo laukizuzen bat osatzen duten sei). Ezin bada, arbolen ordeiz beste zerbait ere erabil daiteke: lau zutabe, adibidez.

Nola jolastu?

1-Lau zuhaitz aukeratu behar dira (lekuaren arabera, 5 edo 6 zuhaitz ere erabil daitezke), eta, jolasten hasi aurretik, zuhaitzak zein hurrenkeran “kenduko” diren erabaki behar da (hor jarraituko dute, noski, baina ez dute “etxe” moduan balioko). Aulki-jokoaren antzeko jolasa da hau, baina aulkien ordeiz zuhaitzak erabiltzen dira.

2-Jokalari kopurua zuhaitz kopurua gehi bat izango da: zuhaitzak 4 baldin badira, 5 lagun (5 baldin badira, 6). Eta ume batek abestu egingo du. Horrenbestez, guztira 6 izango lirateke.

3-Ume bat erdiko puntuan jarriko da (zuhaitzek osatzen duten laukiaren edo laukizuzenaren erdian), eta kantatu egingo du, besteak bere inguruan bueltaka dituen bitartean. Posible da umeak arbolatik arbolara ibiltzea ere, ume horren inguruan izan gabe.

4-Kantatzen dagoen umea isiltzen denean, “txirrin-txirrin” esateari uzten dionean, beste umeak zuhaitzak ikutzera joango dira. Zuhaitz gabe geratzen den umea jolasetik kanpora geratuko da.

5-Zuhaitz bat “kenduko” da, jada ez da “etxea” izango. Eta berriz abestuko du umeak. Lau jokalaria egongo dira, eta hiru zuhaitz. Hurrengoan bi zuhaitz eta bukaera bat.

6-Jokalari bakarra geratzen denean bukatuko da jolasa.

***Txirrin bat eta txirrin bi,
hiru txirrin eta lau txirrin,
bost txirrin eta sei txirrin...
Txirrin, txirrin, txirrin,
txirrin...***

Partaide kopurua (gutxienez): 5

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/arbolatik-arbolara>



TXAPA LASTERKETA

ibilbidea marraztu eta txapekin lasterketa egitea

+ 4 URTE



Zer behar da?

Klariona, bidea marrazteko, eta botilen txapak.

Tabernetan eska ditzakete: tabernariari gordetzeko esan. Garagardo botilen txapak izan daiteke, freskagarrienak... Jokalari bakoitzak txapa bana izango du. Txapak pintatu egin daitezke, "tuneatu".

Nola jolastu?

1-Ibilbidea prestatu. Txapa lasterketa hasi aurretik, ibilbidea marraztu behar da. Klarionarekin bide bat marraztuko dugu, errebueltak dituen... Hasiera eta Helmuga izango ditu. Ikasleak launada jarri ditzakegu, eta talde bakoitzak bere ibilbidea marraztu dezala, nahi duen bezala.

2-Jolastu. Jokalari bakoitzak ibilbidearen hasieran jarriko du bere txapa. Nola erabaki nor hasiko den? Zotz egingo dugu.

3-Behatzarekin jo behar da txapa, aurreratzeko. Txandaka jolastuko dugu, aldiko batek, ukitu bat emango dio bere txapari. Ibilbidetik ateratzen dena berriro hasiko da, eta marra zapaltzen geratzen baldin bada ere bai: Hasiera-ra bueltatu beharko da. Beste aukera bat: beste baten txapa joz gero, hura Hasiera-ra bidaliko du.

4-Helmuga-ra lehenengo iristen denak irabaziko du.

Ume oso txikiekin bideak zuzena izan behar du, errebueltak gutxiak, eta zabal samarra. Aukera bat: bi sokarekin egitea bidea (horrela txapak ez dira bidetik hain erraz aterako). Handiagoekin, posible da ibilbidea estuagoa eta zigi-zagatsuagoa izatea. Gero eta trebetasun handiagoa, ibilbidea estuagoa eta konplexuagoa izan daiteke. Posible da bidean oztopoak jartzea ere. Umeen irudimena libre uztea onena.

Partaide kopurua (gutxienez): 2

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txapa-lasterketa>



ZAPIAREN JOLASA

Zapi batekin egiten den harrapaketa jolasa



Zer behar da?

Zapi bat eta jolasteko leku zabal bat..

Nola jolastu?

1-Bi marra marraztuko ditugu lurrean, klarionarekin. Marren arteko distantzia umeen adinaren arabera alda daiteke: gero eta handiagoak, distantzia ere handiagoa. Adibidez, 6 metroko distantzia badago bi marren artean, erdibidean, 3 metrora, beste marka bat egingo dugu lurrean: hortxe ipiniko da zapia duena.

2-Zapia eutsiko duena nor izango den erabakiko dugu, eta gainerako umeak bi taldetan banatuko dira. Horretarako, zotz egin dezakete. Talde bietako kideen kopurua bera izango da, eta jokalaria bakoitzak zenbaki bat izango du. Sei baldin badira, batek 1 zenbakia izango du, beste batek 2 zenbakia... eta horrela 6 arte.

3-Talde bateko kideak marra baten atzean jariko dira eta besteak paran, beste marraren atzean. Zapiduna, berriz, erdian. Talde bakoitzetik aldiko bana irtengo da korrika. Zein? Zapidunak zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duten bi jokalaria (talde bakoitzetik bat) zapiaren bila abiatuko dira. Adibidez, zapia duenak "bi" esaten baldin badu, talde bakoitzeko "bi" zenbakidunak aterako dira korrika zapia hartzera.

4-Helburua: zapia hartu, eta bere taldekideei eramatea, marra dagoen tokiraino. Bidean doala, beste taldekoak harrapatzen baldin badu, zapia bestearentzat izango da. Zapia lortzen ez duena jolasetik kanpo geratuko da, eta bere zenbakia beste taldekide batek hartuko du.

5-Taldeetako bat jokalaria gabe geratzen denean amaituko da jolasa. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta umeak aspertutakoan edo puntu kopuru jakin batera iristean (adibidez, zapia 10 aldiz hartzea; zapia hartzen den aldiko puntu 1 lortuko dute) bukatzea jolasa

Partaide kopurua (gutxienez): 5

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/banderetara-zapiaren-jolasa>





0-6 URTE



HITZIKI

Hiztegia ikasteko jolasa

Juego educativo para el aprendizaje de vocabulario en euskera



<http://hitziki.onoff.es/>



ANIMALIAK

Irakurketa lantzeko animalien inguruko jolasa.

Juego en euskera sobre los animales para descubrir las letras y practicar la lectura



<http://animaliak.onoff.es/>



ESANBAKI

Euskal gramatika eta hiztegia ikasteko jolasa

Aprende jugando vocabulario y gramática en euskera



<http://esanbaki.onoff.es/>

6-10 URTE



NOR DA?

Arreta, memoria eta hizkuntza garatzeko jolasa

Juego interactivo en euskera, que favorece el desarrollo de la atención, la memoria y el lenguaje



<http://norda.onoff.es/>



TXIKISUPER

Logika jolas interaktiboa

Juego interactivo de lógica en euskera




<http://txikisuper.onoff.es/>



TXIRRITX KILKERRA

JOLASTU

TXIRRITX



NAHI AL DUZU TXIRRITX KILKERRAREKIN JOLASTU?

Haur hezkuntzako 4-5 urteko Urtxintxa proiektuko joko dibertigarri honetan, Txirritx kilkerra izango da gidari eta gai ugari lantzeko aukera emango du.

Puzzleak, labirintoak, ipuinak, memoria jolasak... modu dibertigarri eta didaktikoan landuko dira.

Webgunean 11 gai topa ditzakezu. Gai hauek, Urtxintxa proiektuan, 4-5 urteko haurrek lantzen dituzten unitateekin lotura dute. Urtxintxa proiektua gelan lantzen dutenek, gai berdinak lantzen direla ikusiko dute. Baina Urtxintxa proiektua lantzen ez dutenek ere ongi pasako dute.

Gai bakoitzean ipuin bat dago eta hau ardatza izanik, ariketa mota desberdinak landuko dira: Labirintoak, puzzleak, memoria jolasak...



<https://txirritx.eus/>



Escape Room digitala

+ 10 URTE

"Hogwartseko ihesgela digitala"



<https://labur.eus/JGoMm>

"Gose Jokoak"



<https://labur.eus/E0xhL>



GOZATU UDAN JOLASEAN!